

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

6260

IRAGARKIA, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez jendurrean jartzen baitira hondakinak tratatzeko zenbait instalazioren ingurumen-baimen integratuak berrikusteko espedienteak.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren arabera (abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua), ingurumen-baimen integratua behar da 1. eranskinean jasotako jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu edo lekualdatzeko, bai eta funtsean aldatzeko ere.

Ingurumen-baimen integratuaren helburua da baldintzak ezartzea atmosferaren, uraren eta lur-zoruaren kutsadura saihesteko, eta, hori ezinezkoa bada, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea eta kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea behintzat, ingurumena ahalik eta gehien babesteko.

Aipatutako testu bateginaren 26. artikulua agintzen du ofizioz berrikus daitezela ingurumen-baimen integratuak, instalazio baten jarduera nagusiari dagokionez teknika erabilgarri onenei (TEOn) buruzko ondorioak argitaratzearen ondorioz. 2018ko abuztuaren 17an, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Batzordearen 2018ko abuztuaren 10eko Exekuzio Erabakia (EB), zeinaren bidez ezartzen baitira hondakinak tratatzeko teknologia erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauaren esparruan.

Aipatutako testu bateginaren 26. artikulua eta urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuak onartutako Industriako Isurpenen Erregelamenduaren eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen Erregelamenduaren 16. eta 15. artikuluek arautzen dute berrikuspen-prozedura, eta gutxienez hogeit hamar eguneko jendurreko informazio-aldia ezartzen dute.

Horregatik guztiagatik, jendurrean jarri behar dira eranskinean zehaztutako espedienteak, hogeit hamar egun baliaduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egoki iritzitako alegazioak edo oharra aurkez daitezela. Espediente horiek ikusgai egongo dira Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa: (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>).

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 29a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,
JAVIER AGIRRE ORCAJO.

ERANSKINA

HONDAKINAK TRATATZEKO INSTALAZIOAK, ZEINEN BERRIKUSPEN-ESPEDIENTEAK
JENDAURREAN JARTZEN BAITIRA

Espedientea	Ingurumen-baimen integratuaren titularra	Herria/Udalerría
AAI00044	Sociedad Anónima para la descontaminación y eliminación (SADER) SA	Bilbao
AAI00074	Indumetal Recycling SA	Erandio
AAI00353	Biocompost de Álava UTE	Vitoria-Gasteiz
AAI00354	Suez RR IWS Ibérica SLU	Legutio
AAI00361	Deydesa 2000 SL	Legutio
AAI00362	Zabor Recycling SL	Legutio
AAI00363	Fragnor SL	Amorebieta-Etxano
AAI00364	Derichebourg España SA	Asparrena
AAI00365	Recyclair SL	Agurain
AAI00368	Ditecsa Soluciones Medioambientales SL	Deba
AAI00376	Sanemar SL	Pasaia
AAI00377	Sercontrol SL	Amorebieta-Etxano
AAI00379	Terminales Portuarias SL (TEPSA)	Zierbena
AAI00393	Hondakin SL	Bergara
AAI00395	Consortio de Residuos de Gipuzkoa - Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa	Donostia
AAI00396	Recypilas SA	Erandio